E.A.E.KO ADMINISTRAZIO OROKORRA
*ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA C.A.E.*

**PROGRAMA**

1125 EUSKADIKO AHOLKU-BATZORDE JURIDIKOA

**ARDURADUNA**

02 HERRI-ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA

ARAUBIDE JURIDIKOAREN SAILBURUORDEA

**HELBURUA**

1. KONTSULTA-EGINKIZUNA BETETZEA
2. KONTSULTA-EGINKIZUNA EZAGUTARAZTEA
3. BATZORDEAREN IRIZPENA JASO BEHAR DUTEN KONTSULTEN DOKUMENTAZIOA PRESTATZEA ETA BILKURETARAKO GAI-ZERRENDA LANTZEA
4. BATZORDEAK HARTUTAKO ERABAKIAK BETEARAZTEKO DOKUMENTUAK PRESTATZEA ETA BEHARREZKO IZAPIDEAK EGITEA

**BETETZE MAILA**

**1. KONTSULTA-EGINKIZUNA BETETZEA**

2015.ean, 221 kontsulta-eskari sartu dira kontsulta-organo honen idazkaritzan. Horietatik 27 itzuli dira, organo kontsulta-egileak berak eskatuta batzuk, eta Batzordearen ekimenez beste batzuk (garrantzizko hutsuneak ikusi direlako espedienteen tramitazioan, eskariek forma-akatsak zituztelako, edota batzordearen eskumenekoak ez zirelako). Era berean, 64 idazki jaso dira, bidalitako espedienteen dokumentazioa osatze aldera, baita 153 jakinarazpen edo komunikazio ere, irizpena jaso duen gaian emandako behin betiko ebazpenaren berri emateko.

Batzordeak, bere aldetik, dokumentazioa zabaltzeko eskari bat izapidetu du, izapidetzeko onartu diren kontsultak direla eta.

**2. KONTSULTA-EGINKIZUNA EZAGUTARAZTEA**

2014. urteko memoria prestatu da, eta formatu elektronikoan bakarrik editatu; hain zuzen ere, Batzordearen web orriaren bitartez jarri da herritarren eta erakunde publikoen esku.

**3. BATZORDEAREN IRIZPENA JASO BEHAR DUTEN KONTSULTEN DOKUMENTAZIOA PRESTATZEA ETA BILKURETARAKO GAI-ZERRENDA LANTZEA**

Batzordearen osoko bilkurak 43 saio egin ditu: gai-

***PROGRAMA***

*1125 COMISIÓN JURÍDICA ASESORA DE EUSKADI*

***RESPONSABLE***

*02 ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA*

*VICECONSEJERO DE RÉGIMEN JURÍDICO*

***OBJETIVO***

1. *EJERCICIO DE LA FUNCIÓN CONSULTIVA*
2. *DIVULGACIÓN DE LA FUNCIÓN CONSULTIVA*
3. *PREPARACIÓN DE LA DOCUMENTACIÓN DE LAS CONSULTAS A DICTAMINAR POR LA COMISIÓN Y ELABORACIÓN DE LOS ÓRDENES DEL DÍA DE SUS SESIONES*
4. *PREPARACIÓN DE LOS DOCUMENTOS Y REALIZACIÓN DE LOS TRÁMITES NECESARIOS PARA LA EJECUCIÓN DE LOS ACUERDOS ADOPTADOS POR LA COMISIÓN*

***GRADO DE CUMPLIMIENTO***

***1. EJERCICIO DE LA FUNCIÓN CONSULTIVA***

*Durante 2015 han tenido entrada en la secretaría de este órgano consultivo 221 solicitudes de consultas. De ellas 27 fueron devueltas, ya sea por propia solicitud del órgano consultante o a iniciativa de la propia Comisión (al detectar importantes carencias en la tramitación de los expedientes, por defectos formales en la solicitud o por no ser de su competencia). Asimismo se han recibido 64 escritos ampliando la documentación de los expedientes remitidos y 153 comunicaciones de la resolución definitiva recaída en el asunto dictaminado.*

*Por su parte, la Comisión ha tramitado una solicitud de ampliación de documentación relacionada con las consultas admitidas a trámite.*

***2. DIVULGACIÓN DE LA FUNCIÓN CONSULTIVA***

*Se ha preparado y editado únicamente en formato electrónico la memoria del año 2014, poniéndola a disposición de la ciudadanía y de las instituciones públicas a través de la Web de la Comisión.*

***3. PREPARACIÓN DE LA DOCUMENTACIÓN DE LAS CONSULTAS A DICTAMINAR POR LA COMISIÓN Y ELABORACIÓN DE LOS ÓRDENES DEL DÍA DE SUS SESIONES***

*Se han elaborado los órdenes del día, y se ha*

zerrendak egin dira, eta dagokion dokumentazioa prestatu, baita batzordeko kideei banatu ere.

**4. BATZORDEAK HARTUTAKO ERABAKIAK BETEARAZTEKO DOKUMENTUAK PRESTATZEA ETA BEHARREZKO IZAPIDEAK EGITEA**

Onartu eta jakinarazitakoak: 2 erabaki eta 193 irizpen (53, xedapen orokorrei buruzkoak, eta 140, berriz, administrazio-egintzen gainekoak).

*preparado y repartido a los miembros de la Comisión la documentación correspondiente, para las 43 sesiones que ha celebrado el Pleno.*

***4. PREPARACIÓN DE LOS DOCUMENTOS Y REALIZACIÓN DE LOS TRÁMITES NECESARIOS PARA LA EJECUCIÓN DE LOS ACUERDOS ADOPTADOS POR LA COMISIÓN***

*Se han aprobado y notificado 2 acuerdos y 193 dictámenes: 53 sobre disposiciones generales y 140 sobre actos administrativos.*

| **PROGRAMA** | ***PROGRAMA*** |
|---|---|
| 1211 HERRI ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA EGITURA ETA LAGUNTZA | *1211 ESTRUCTURA Y APOYO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 02 HERRI-ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA | *02 ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA* |
| HERRI-ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA | *CONSEJERO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA* |

## HELBURUA

1. SAILBURUAREN KANPO-HARREMANAK ETA SAILBURU ETA GOBERNUKO BOZERAMAILE GISA GIZARTE-KOMUNIKABIDEEKIN DITUEN HARREMANAK
2. SAILAREN AURREKONTUEN AURREPROIEKTUA EGITEA ETA AURREKONTU HORREN KUDEAKETAZ ETA JARRAIPENAZ ARDURATZEA
3. AHOLKULARITZA ETA KOORDINAZIO JURIDIKOA
4. ZUZENDARITZEI AHOLKUAK EMATEA EGITEN DITUZTEN ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOETAN
5. LANGILEEN ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA
6. INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAK SAILAREN BEHARRETARA EGOKITZEA
7. SAILAREN ANTOLAKETAREN, BALIABIDEEN ETA EGINKIZUN KOMUNEN INGURUKO LAGUNTZA ETA KOORDINAZIOA
8. SAILEAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA
9. SAILEAN BERDINTASUNERAKO POLITIKAK SUSTATZEA ETA KOORDINATZEA ETA BESTE ZUZENDARITZA ETA ARLO BATZUEKIN LANKIDETZAN JARDUTEA 4/2005 LEGEA ETA X. LEGEALDIKO BERDINTASUNERAKO PLANA GAUZATZEKO
10. ESTATISTIKA-ERAGIKETAK

## *OBJETIVO*

*1. RELACIONES EXTERNAS DEL CONSEJERO, Y RELACIONES CON LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL EN SUS FUNCIONES DE CONSEJERO Y PORTAVOZ DE GOBIERNO*

*2. ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO DE PRESUPUESTOS DEL DEPARTAMENTO, GESTIÓN Y SEGUIMIENTO DE SU EJECUCIÓN*

*3. ASESORÍA Y COORDINACIÓN JURÍDICA*

*4. PRESTACIÓN DE ASESORAMIENTO A LAS DIRECCIONES EN LAS CONTRATACIONES ADMINISTRATIVAS QUE REALICEN*

*5. ADMINISTRACIÓN Y GESTIÓN DE PERSONAL*

*6. ADECUACIÓN DE LAS TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN A LAS NECESIDADES DEPARTAMENTALES*

*7. COORDINACIÓN Y APOYO EN MATERIAS DE ORGANIZACIÓN, MEDIOS Y FUNCIONES DE NATURALEZA COMÚN, DEL DEPARTAMENTO*

*8. FOMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN EL DEPARTAMENTO*

*9. IMPULSO Y COORDINACIÓN DE LAS POLÍTICAS DE IGUALDAD EN EL DEPARTAMENTO Y COLABORACIÓN CON DIRECCIONES Y ÁREAS PARA EJECUCIÓN LEY 4/2005 Y PLAN DE IGUALDAD DE X LEGISLATURA*

*10. OPERACIONES ESTADÍSTICAS*

## BETETZE MAILA

**1. SAILBURUAREN KANPO-HARREMANAK ETA SAILBURU ETA GOBERNUKO BOZERAMAILE GISA GIZARTE-KOMUNIKABIDEEKIN DITUEN HARREMANAK**

2015. ekitaldian, bere lantaldearekin batera prestatu ditu sailburuak hedabideen aurreko agerraldiak, Jaurlaritzaren Kontseiluak egin dituen 48 ohiko

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

***1. RELACIONES EXTERNAS DEL CONSEJERO, Y RELACIONES CON LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN SOCIAL EN SUS FUNCIONES DE CONSEJERO Y PORTAVOZ DE GOBIERNO***

*A lo largo del ejercicio del 2015 el Consejero en colaboración con su equipo ha preparado la comparecencia ante los medios de comunicación, para*

bilkuretan jorratutako gaiei buruzko informazioa emateko.

*informar sobre los temas tratados en las 48 ocasiones en que se ha reunido el Consejo de Gobierno en sus Sesiones Ordinarias.*

Jaurlaritzaren bozeramale gisara, 61 agerraldi egin ditu hedabideen aurrean 2015. urtean, Jaurlaritzak bere eskumeneko arlo guztietan gauzatu dituen politikak azaltzeko.

*En su calidad de Portavoz del Gobierno y a lo largo del año 2015 ha comparecido ante los medios de comunicación en 61 ocasiones explicando las políticas del Gobierno en todas aquellas materias que son de su competencia.*

Herri Administrazio eta Justiziako sailburu den aldetik, berriz, 75 esku-hartze publiko egin ditu, bere zuzendaritzapeko Sailaren jardunak azaltzeko eta horien berri emateko (Eusko Jaurlaritzaren ohiko bilkurak eta kontrol-bilkurak barne).

*En su calidad de Consejero de Administración Pública y Justicia ha tenido 75 intervenciones públicas explicando y divulgado las actuaciones del Departamento del que es titular (incluidos los Plenos Ordinarios y de Control del Parlamento Vasco).*

Dibulgazio-lan hori sendotzeko, 22 elkarrizketa eman ditu irratian eta telebistan, eta beste 18 elkarrizketa idatzizko prentsan (egunkari eta aldizkariak).

*Esta labor divulgativa se ha visto reforzada con las 22 entrevistas realizadas en radio y televisión y en otras 18 entrevistas realizadas en prensa escrita en Diarios y Revistas.*

**2. SAILAREN AURREKONTUEN AURREPROIEKTUA EGITEA ETA AURREKONTU HORREN KUDEAKETAZ ETA JARRAIPENAZ ARDURATZEA**

***2. ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO DE PRESUPUESTOS DEL DEPARTAMENTO, GESTIÓN Y SEGUIMIENTO DE SU EJECUCIÓN***

Aurreko urteetan bezala, urtarrilean, 2014. urterako proposatutako helburuen betetze-mailari buruzko memoriak egin ziren, saileko hainbat zerbitzurekin koordinatuta.

*Durante el mes de enero se procedió, como en años anteriores, a la confección de las memorias del grado de cumplimiento de los objetivos programados para 2014, todo ello en coordinación con los diversos servicios del departamento.*

2015. ekitaldiko bigarren seihilekoan egin ziren 2016. ekitaldirako Aurrekontuen Aurreproiektua egiteko prestaketa-lanak.

*En el segundo semestre del ejercicio 2015 se realizaron los trabajos preparatorios para la elaboración del Anteproyecto de Presupuestos para el ejercicio 2016.*

Aurrekontua betetzeko, eta haren jarraipena eta kontrola egiteko, oinarrizkoa izan da gastu-zentroetako arduradunek eta Zerbitzu Zuzendaritzako arduradunek ondo koordinatzeko egin duten lana, sailen betetze-maila oro har aztertu baitute, sailean sortutako kontabilitateko agiri guztiak izapidetuz, eta dauden informatikako aplikazioen bidez datuak sartuz eta aztertuz (IKUS eta FOAS).

*La ejecución, seguimiento y control del presupuesto, se ha basado principalmente en una buena coordinación entre los distintos responsables de los centros de gastos y de la Dirección de Servicios, quienes han tenido una visión global de la ejecución departamental, gracias a la tramitación de toda la documentación contable generada en el departamento y a la introducción y análisis de sus datos a través de las aplicaciones informáticas existentes (IKUS y FOAS).*

Artxibatze- eta erregistro-lanei dagokienez, horretarako emandako arauek eskatzen dituzten horiexek egin dira: fakturak artxibatzea, gastuak erregistratzea, transferentzien zerrenda egitea, etab.

*Los archivos y registros que se han llevado, son los que exigen las normas dictadas a tal efecto: archivo de facturas, registro de gastos, relación de transferencias,…*

**3. AHOLKULARITZA ETA KOORDINAZIO JURIDIKOA**

***3. ASESORÍA Y COORDINACIÓN JURÍDICA***

2015. urtean barrena, 143 gai sartu dira aholkularitza juridikora: horietatik 2, lege-aurreproiektuei buruzko txosten juridikoak egitekoak; beste 3, dekretu proiektuei buruzko txosten juridikoak; 4 txosten juridiko, diru-laguntzak emateko prozedurak arautzeko aginduei buruzkoak; beste 10 edozein motatako aginduei buruzkoak; beste 1, zuzeneko diru-laguntzak emateari buruzko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Akordio-proposamenari buruzkoa; 4, hainbat ekimenen gainean Jaurlaritzaren Kontseiluak emandako akordio-proposamenei buruzkoak; 14, Sail honek EJIE enpresa publikoari eta IZENPE enpresa partaidetuari emandako kudeaketa-aginduei buruzko txosten juridikoak. Beste

*Durante 2015 han tenido entrada en la asesoría jurídica 143 asuntos. De ellos 2 han tenido por objeto la elaboración de informes jurídicos sobre anteproyectos de Ley; 3 sobre proyectos de Decreto; 4 han sido informes jurídicos sobre Órdenes reguladoras de procedimientos de concesión de subvenciones; 10 en otro tipo de Órdenes; 1 propuesta de Acuerdo del Consejo de Gobierno sobre concesión de subvención directa; 4 acerca de propuestas de Acuerdo del Consejo de Gobierno sobre iniciativas de diversa índole; 14 han sido informes jurídicos sobre encomiendas de gestión realizadas desde este Departamento la empresa pública EJIE, y a la*

alde batetik, 3 aldiz aztertu dira Jaurlaritzako beste sail batzuen arau-ekimenak, alegaziorik egin gabe; 4tan, lankidetza-hitzarmenak sinatzeko beharrezko txostenak egitea egokitu zaio; 18 izan dira aurkeztutako gorako errekurtso edo eskabideei buruzko aginduak edo ebazpenak; 8, kide anitzeko organoetan Saileko ordezkariak izendatzeko espedienteak; 15, ondare-erantzukizuneko espedienteen izapideak. Azkenik, gainerako 57 gaietan, Saileko zuzendaritzek proposatutako gai zehatzei buruzko aholkularitza juridikoa eman da.

*participada IZENPE; en 3 ocasiones se han analizado iniciativas normativas de otros Departamentos del Gobierno sin haber realizado alegaciones a las mismas; 4 han sido informes elaborados con ocasión de la suscripción de convenios de colaboración; 18 han sido Órdenes o Resoluciones a recursos de alzada y solicitudes presentadas; 8 han sido expedientes de designación de representantes del Departamento en órganos colegiados; 15 casos de tramitación de expedientes de responsabilidad patrimonial y en los restantes 57 asuntos se ha prestado asesoramiento jurídico sobre cuestiones puntuales planteadas por las Direcciones del Departamento.*

**4. ZUZENDARITZEI AHOLKUAK EMATEA EGITEN DITUZTEN ADMINISTRAZIO-KONTRATAZIOETAN**

Kontratazioaren esparruan, sailaren aholkularitza juridikoa egin da bai eta saileko kontratazio-mahaiaren idazkaritza-lanak ere. Horrez gain, hainbat zuzendaritzak eskatutako kontratazio-espedienteak izapidetu, esleitu eta formalizatu dira saileko kontratazio-organoarentzat. Zehazki, 44 kontratazio-espediente egin dira: 18 zerbitzu-kontratu, 10 hornidura-kontratu, 13 luzapen, eta 3 obra-kontratu; hauetariko 1, emergentziakoa. Horrez gain, 138 kontratu txiki izapidetu dira: 14 obra-kontratu, 96 zerbitzu-kontratu eta 28 hornidura-kontratu.

***4. PRESTACIÓN DE ASESORAMIENTO A LAS DIRECCIONES EN LAS CONTRATACIONES ADMINISTRATIVAS QUE REALICEN***

*En el ámbito de la contratación, se ha desarrollado la función de asesoramiento jurídico y secretaria de la mesa de contratación del departamento, y se han tramitado, adjudicado, incluida su formalización, para el correspondiente órgano de contratación del departamento, los expedientes de contratación instados por las distintas direcciones, habiéndose realizando las siguientes contrataciones administrativas: 44 expedientes de contratación, de los cuales 18 han sido de servicios, 10 de suministros, 13 prórrogas y 3 de obras, uno de los cuales ha sido de emergencia; además se han tramitado 138 contratos menores, de los cuales 14 han sido de obras, 96 de servicios y 28 de suministros.*

**5. LANGILEEN ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA**

Herri Administrazio eta Justizia Saileko langileak –541 guztira– administratzeko, agiri ugari izapidetu behar izan dira, besteak beste: lanpostuak hornitzeko espedienteak, baimenak, langileek egindako kontsulten erantzunak eta Funtzio Publikoko Sailburuordetzak kudeatutako hainbat prozesutan lankidetzan aritzeko beharrezkoak; azken horien artean, SAP informazio-sistema ezarri berriaren hainbat moduluren funtzionamenduaren jarraipena erabiltzaile gisa, besteak beste.

***5. ADMINISTRACIÓN Y GESTIÓN DE PERSONAL***

*La administración de la plantilla de personal del Departamento Administración Pública y Justicia, que hace un total de 541 personas, han supuesto la tramitación de un gran número de expedientes de provisión de puestos, licencias y permisos, atención a las consultas formuladas por la plantilla, colaboración en diferentes procesos gestionados por la Viceconsejería de Función Pública, entre ellos el seguimiento, como usuario, del funcionamiento de varios módulos de Sap recientemente implantados, etc.*

**6. INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAK SAILAREN BEHARRETARA EGOKITZEA**

Atal honen barruan, 729 erabiltzaileren informatika-beharrizanak kudeatu dira, eta zeregin profesionalak burutzeko behar zituzten ekipoak eman zaizkie. Ekipo horietatik (ordenagailuak, inprimagailuak, eskanerrak,...), 835 eskuratu dira renting-kontratu baten bitartez, Eusko Jaurlaritzak EJIEri egin dion gomendio orokorraren barruan baitago. Beste 49 ekipo, berriz, Sailak ditu jabetzan.

Atal honetan, eta Eusko Jaurlaritzak EJIEri egin dion gomendio orokorraren bitartez, EJIEko 25 profesionalen laguntza teknikoa izan dugu, zeinek 38.604 ordu fakturatu baitizkiote Sailari (hasieran aurreikusita zeuden 40.020

***6. ADECUACIÓN DE LAS TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN A LAS NECESIDADES DEPARTAMENTALES***

*Dentro de este apartado se han gestionado las necesidades informáticas de 729 usuarios, proporcionándoles los equipos necesarios para la realización de sus tareas profesionales. De estos equipos (ordenadores, impresoras, escáner,…), 835 han sido proporcionados a través del renting incluido en la Encomienda General del Gobierno a EJIE y otros 49 equipos son propiedad del propio Departamento.*

*En este apartado y por medio de la Encomienda General del gobierno a EJIE, hemos contado con la Asistencia Técnica de 25 profesionales de EJIE que han facturado 38.604 horas al Departamento (de las 40.020 previstas*

orduetatik). Profesional horiek arduratu dira EJIEren zerbitzarietan ostatatutako sail-aplikazioen zuzentze- eta garapen-mantentzeaz. Azpimarratzekoa da talde horrek ekitaldi honetan, aurreko ekitaldietan bezala. egindako ahaleginen alde garrantzitsu bat Pertsonalaren Kudeaketa Integralaren (GIP) bilakaera teknologikorako den EIZU proiektuan lankidetzan aritu izana izan dela. Horrez gain, familia elkarguneen kudeaketarako aplikazio berri baten garapenari hasiera eman zaio eta horren lehenengo fasea ezarri da dagoeneko. Datozen ekitaldietan fase berriak ezarriko dira. Era berean, zazpi prozedura telematiko berri sortu dira Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzarako.

*inicialmente). Estos profesionales se han encargado del mantenimiento correctivo y evolutivo de las aplicaciones departamentales albergadas en los servidores de EJIE. Es de destacar que una parte importante de los esfuerzos de este equipo en el presente ejercicio, al igual que en los ejercicios anteriores, se ha dedicado a colaborar en el proyecto EIZU para evolución tecnológica del GIP (Gestión Integral de Personal). Además, se ha comenzado el desarrollo de una nueva aplicación para la "Gestión de puntos de encuentro familiar", de la cual, se ha implantado la primera fases y se irán implantando nuevas fases en los próximos ejercicios. También se han creado siete nuevos procedimientos telemáticos para la Dirección de Relaciones con las Administraciones Locales y Registros Administrativos.*

## 7. SAILAREN ANTOLAKETAREN, BALIABIDEEN ETA EGINKIZUN KOMUNEN INGURUKO LAGUNTZA ETA KOORDINAZIOA

## *7. COORDINACIÓN Y APOYO EN MATERIAS DE ORGANIZACIÓN, MEDIOS Y FUNCIONES DE NATURALEZA COMÚN, DEL DEPARTAMENTO*

Sail honetako zuzendaritza batzuekin batera aritu gara koordinazioan, 2015. urteko ekitaldian sortutako barne-eskari guztiak izapidetzeko. Besteak beste, honako hauek antolatzeko: altzariak, informatikakoa ez den ekipamendua, ibilgailuak, espazioa, telefonia eta zehaztu gabeko beste bitarteko material batzuk.

*En este ámbito se ha coordinado, en colaboración con otras direcciones de este departamento, los trabajos necesarios con el fin de dar trámite a todas las peticiones internas, generadas durante el ejercicio 2015, de organización de mobiliario, equipamiento no informático, vehículos, espacio, telefonía y otros medios materiales sin especificar.*

Langileen prestakuntzari dagokionez, IVAPek edo beste erakunde pribatu zein publiko batzuek deitutako ikastaro, jardunaldi, mintegi eta abarrak koordinatu eta kudeatu ditugu.

*En lo que respecta a la formación del personal, se ha coordinado y gestionado los cursos, jornadas, seminarios, etc., convocados por el IVAP o por otras entidades, tanto públicas como privadas.*

## 8. SAILEAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA

## *8. FOMENTAR EL USO DEL EUSKERA EN EL DEPARTAMENTO*

Saileko hizkuntza-normalizazioa sustatzeari jarraitu zaio Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren V. Plangintzaldirako ezarrita dauden ildoei jarraituz. Horretarako, alde batetik, IVAPekin, tutoreekin eta ikasleekin bitartekari lana egiten segitu dugu eta, bestetik, ondoren adierazten diren ekintza zehatz hauen kudeaketa, izapide eta jarraipen lanak bete ditugu.

*Se ha continuado con el impulso a la normalización lingüística en el Departamento, siguiendo las directrices marcadas por el Plan de Normalización del Uso del Euskera en su V Período de Planificación. Se ha continuado con el trabajo de intermediación entre el IVAP, los tutores y los alumnos, por un lado, y mediante la gestión, tramitación y seguimiento de diferentes acciones concretas.*

Horrela, IVAPeko ikastaroak koordinatzea eta kudeatzeari dagokionez hizkuntza-normalizazio orokorreko ikastaroen 45 espediente kudeatu dira, eta horietatik 39 izan dira onartutakoak: 10 lanorduetan eta 29 lanorduetatik kanpo. Era berean, 22 langilek parte hartu dute, guztira, hizkuntza-garapenaren prozesuari dagozkion beste ikastaro batzuetan, IVAPek eskaini baititu.

*Así, referido a la coordinación y gestión de cursos del IVAP, se han gestionado 45 expedientes de cursos de normalización lingüística general, de los cuales han sido 39 los admitidos: 10 en horario laboral y 29 fuera. De la misma forma, han asistido un total de 22 trabajadores a otros cursos ofertados por el IVAP referidos al proceso de desarrollo lingüístico.*

Normalkuntza prozesuan jendaurreko lanpostuek duten garrantziari begira, Zuzenean Zerbitzuko hainbat langilek parte hartu dute galdutako trebezia berreskuratzeko IVAPek langile hauentzako berariaz antolatutako birziklatze ikastaroetan. Hala nola, 24 izan dira 2. hizkuntza eskakizuneko ikastaroetan parte hartu dutenak eta 36, berriz, 3. hizkuntza eskakizunekoetan, Bilbon, Donostian eta Gasteizen, hain zuzen.

*Teniendo en cuenta la importancia que los puestos de atención al público tienen en el proceso de Normalización, algunos trabajadores del Servicio Zuzenean han tomado parte en los cursos de reciclaje expresamente organizados para ellos por el IVAP, con el objeto de recuperar la destreza perdida. Así, han sido 24 los que han tomado parte en los del perfil lingüístico 2 y 36, a su vez, los que lo han hecho en los del perfil lingüístico 3, en Bilbao, Donostia y Gasteiz, concretamente.*

Euskararen erabilera lanpostuetan ezartzeko lanak koordinatzea eta kudeatzeari dagokionez, jarraipena eman

*En cuanto a la coordinación y gestión de los trabajos de implantación del uso del euskera en los puestos de trabajo,*

zaio ELEBI Programari, IVAPek horrela proposatuta, eta horretan gure saileko 5 langilek parte hartu dute.

Horren ondorioz, bilerak egin dira IVAPekin, tutoreekin eta parte hartzen duten langileekin, programa hori aurrera eraman ahal izateko. Modu berean, beharrezkoak izan diren gestioak egin dira, aretoen erreserbak egiteko eta tutore zein langile horiek dituzten premiekin lotura duten lanak prestatu ahal izateko.

Saileko “Euskararen erabilera normalizatzeko Plana” ezartzeari ekin zaio, 2013-2017 aldirako. Horretarako, Elhuyar enpresako teknikarien aholkularitza izan dugu.

Horretarako, eragindako atalak aukeratu ondoren, atal bakoitzarekin hiru bilera mota burutu dira: hasierakoa, doakion atalean Normalkuntza Plana aurkezteko; bigarrena, jasotakoarekin egindako atalaren "irudia" aurkezteko; eta hirugarrena, ekintza zehatzak proposatzeko eta konpromisoak eskatzeko. Guztira, 8 ataletan banatutako 148 langileekin izan dira bilerak.

Beste alde batetik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin programatuta dauden hileroko bilerak egin dira. Era berean, hizkuntza-normalkuntzako teknikarien lantaldeak hilero egiten dituen bilerak egin dira.

Ohikoa denez, Normalkuntza Planaren jarraipenari dagokion txostenak egin dira eta hizkuntza-eskakizunen jarraipena egiten ere segitu da, baita horien derrigortasun-datenak ere, eta zenbaitetan aldaketak egitea proposatu da ere.

Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak horrela eskatuta, eta tarteko ebaluazio txostena egin ahal izateko, hark bidali digun inkesta bete dugu eta saileko tarteko balioespen-txostena aurkeztu da.

Prestakuntzaren osagarri gisa, Euskara Zerbitzuak “Bost minutuko ikastaroa” deritzon hezkuntza-unitatea banatzen die Saileko langile guztiei, egunero eta posta elektronikoaren bitartez.

Itzulpen-zerbitzuari dagokionez, 123 dokumentu inguru itzuli ditugu gaztelaniatik euskarara, hau da, 6.200 hitz, gutxi gorabehera. Beste 12 dokumentu zuzendu dira, orotara 14.000 hitz inguru, eta saileko langileek aurkeztutako zalantzak eta eskatutako zuzenketak eta abar erantzun dira.

### 9. SAILEAN BERDINTASUNERAKO POLITIKAK SUSTATZEA ETA KOORDINATZEA ETA BESTE ZUZENDARITZA ETA ARLO BATZUEKIN LANKIDETZAN JARDUTEA 4/2005 LEGEA ETA X. LEGEALDIKO BERDINTASUNERAKO PLANA GAUZATZEKO

2015. urtean zehar, emaitzen azterketa egin zaie Sailean 2014 berdintasun-programaren emaitzei: jarduera-lerroen 32 fitxa egin dira, baita gobernamenduaren galdetegi 1 eta txosten-eranskin 1 ere, sailetako zuzendaritzekin

*se ha continuado con el Programa ELEBI, a propuesta del IVAP, en el que han participado 5 personas del Departamento.*

*Como consecuencia de ello, se han llevado a cabo reuniones con el IVAP, con los tutores y con los trabajadores participantes en el programa, a fin de facilitar su realización. Asimismo, se han realizado las gestiones pertinentes para la reserva de salas y preparación de los trabajos relacionados con las necesidades de dicho personal.*

*Se ha continuado con el “Plan de Normalización del uso del euskera” del Departamento, para el período 2013-2017, para lo que se ha contado con la consultoría de los técnicos de la empresa Elhuyar.*

*Para ello, después de elegir las unidades afectadas, se han llevado a cabo tres tipos de reuniones con cada unidad: la inicial, de cara a presentar el correspondiente Plan de Normalización; la segunda, para presentar la "fotografía" elaborada tras la reunión; y la tercera, para proponer acciones concretas y solicitar su compromiso. En total, han tomado parte 148 trabajadores distribuidos en 8 unidades.*

*Por otro lado, se han mantenido las reuniones mensuales programadas con la Viceconsejería de Política Lingüística. También se han llevado a cabo las reuniones mensuales dentro del Grupo de Trabajo de los técnicos de normalización lingüística.*

*Como es habitual, se ha realizado los pertinentes informes de seguimiento del Plan de Normalización y se ha continuado con el seguimiento de los perfiles lingüísticos y sus fechas de preceptividad, realizando propuestas para su modificación.*

*A petición de la Viceconsejería de Política Lingüística, se ha cumplimentado la encuesta para el informe de evaluación intermedia y se ha redactado el Informe de valoración intermedia del Departamento.*

*Como complemento a la formación, el Servicio de Euskera divulga diariamente, mediante correo electrónico, a todos los trabajadores del Departamento, la unidad educativa denominada “Bost minutuko ikastaroa”.*

*En lo referido al servicio de traducción se ha realizado la traducción de alrededor de 123 documentos del castellano al euskera, es decir, unas 6.200 palabras. Se han corregido otros 12 documentos, que suponen alrededor de 14.000 palabras, y se han atendido las dudas y correcciones solicitadas por los trabajadores del Departamento.*

### *9. IMPULSO Y COORDINACIÓN DE LAS POLÍTICAS DE IGUALDAD EN EL DEPARTAMENTO Y COLABORACIÓN CON DIRECCIONES Y ÁREAS PARA EJECUCIÓN LEY 4/2005 Y PLAN DE IGUALDAD DE X LEGISLATURA*

*Durante 2015 se ha llevado a cabo la Evaluación departamental de Resultados sobre el Programa para la Igualdad 2014 con la elaboración de 32 fichas de ejes de actuación, 1 cuestionario de gobernanza con 1 informe*

kontrasterako 9 bilera eta IVAPekin 1 egin eta gero.

Horrez gain, Herri Administrazio eta Justizia Saileko emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako 2014. urteko programaren Ebaluazioa izeneko dokumentua egin da, 11 ebaluazio-fitxak prestatu ondoren.

Herri Administrazio eta Justizia Sailaren emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunerako 2015erako Programa prestatu da; horretarako, kontrasterako 10 bilera egin dira eta 11 planifikazio-fitxak prestatu.

Genero-eraginari buruzko 2 ebaluazio-txosten egiteko aholkularitza eskaini da, 2 bileratan.

Ogasun eta Finantza Sailarekin lankidetzan aritu gara 2016. urterako aurrekontu-legearen genero-eraginari buruzko txostena prestatzeko: 4 liberatan parte hartu dugu, 11 galdetegi prestatu, berdintasunari buruzko saileko berariazko politikei inguruko txosten 1 egin eta saileko aurrekontu-memorien azterketaren dokumentu 1 landu dugu.

Genero-ikuspegia sustatu eta sartzearen inguruko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko aholkularitza teknikoa eman zaie sailetako zuzendaritzetako langileei: aholkularitzako 12 txosten eta 5 aholkularitza-bilera.

Saileko langileen artean, selektiboki zabaldu dira Berdintasunerako Prestakuntzarako Eusko Jaurlaritzaren Planari (2015) eta Gizonduz Programari (2015) dagozkien prestakuntza-ekintzak.

Emakunderekin lankidetzan aritu gara 4/2005 Legeareb ebaluazioan, elkarrizketa 1, dokumentu 1 eta inkesta 1 eginez, eta Gizonduz Programaren ebaluazioan, elkarrizketa 1ekin.

Aurrerabiderekin ere lankidetzan aritu izan gara eta prozesu-fitxa 1 prestatu dugu 3 bileratan.

Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen Berdintasunerako I. Planaren diagnosia prestatzen hasi gara, eta horretarako 42 lan-dokumentu eta 36 bilera egin ditugu.

Sailarteko Talde Teknikoaren (GTI) 3 bileratan parte hartu dugu baita erakundeen arteko talde teknikoaren (kontratuen, diru-laguntzen eta hitzarmenen klausulei buruzko Lanerako azpitalde teknikoa) 2 bileratan, Aurrerabideri buruzko 2 bileratan eta Emakunderen Emakumeen kontrako Indarkeriaren Arloarekin 2 bileratan ere. Azken honetan 2 txosten prestatu ditugu.

Gainera, Berdintasun Unitateak teknikoki koordinatzen du Saileko Talde Teknikoa (GTD). Bi talde-bilera egin dira eta GTDrako berariazko ikastaro bat antolatu dugu, 10 orduko iraupena izan duena, Gizonduz Programarekin.

### 10. ESTATISTIKA-ERAGIKETAK

Saileko Estatistika Organo Espezifikoak, 2015ean, bi eragiketa estatistikori buruzko informazioa jaso eta ustiatu du, bai eta Sailaren atarian zabaldu ere: 'Sofistikazio Elektronikoaren Indizea –SOFEI2014-' eta

*adjunto y tras realizar 9 reuniones de contraste con direcciones departamentales y 1 con el IVAP.*

*Además se elaboró el documento titulado Evaluación del programa anual para la igualdad de mujeres y hombres 2014 del Departamento de Administración Pública y Justicia, tras la elaboración de 11 fichas de evaluación.*

*Se ha elaborado el Programa para la Igualdad de mujeres y hombres del Departamento de Administración Pública y Justicia para 2015, tras 10 reuniones de contraste y la elaboración de 11 fichas para planificación.*

*Se ha asesorado para la elaboración de 2 Informes de Evaluación de Impacto de Género en 2 reuniones.*

*Se ha colaborado con el departamento de Hacienda y Finanzas en la elaboración del Informe de Impacto de Género de la Ley de Presupuestos 2016: participación en 4 reuniones, elaboración de 11 formularios, 1 informe sobre políticas específicas de igualdad departamentales y 1 documento de análisis de las Memorias presupuestarias departamentales.*

*Se ha realizado el asesoramiento técnico en el impulso y la integración de la perspectiva de género y en materia de igualdad de mujeres y hombres al personal de las diferentes direcciones departamentales: 12 informes de asesoramiento en 5 reuniones de asesoramiento.*

*Se ha difundido selectivamente entre el personal del departamento las acciones formativas del Plan de Formación en materia de Igualdad del GV para 2015 y del Programa Gizonduz 2015.*

*Se ha colaborado con Emakunde en: Evaluación de la Ley 4/2005 con 1 entrevista, 1 documento y 1 encuesta; y en la Evaluación del Programa Gizonduz: 1 entrevista.*

*Se ha colaborado con Aurrerabide elaborando 1 ficha-proceso a través de 3 reuniones.*

*Se ha comenzado la elaboración del Diagnóstico para el I Plan para la Igualdad de la Administración General y sus OOAA a través de 42 documentos de trabajo y 36 reuniones.*

*Se ha participado en 3 reuniones del Grupo Técnico Interdepartamental-GTI, en 2 reuniones del Grupo Técnico Interinstitucional (Subgrupo Técnico de Trabajo sobre clausulas en contratos, subvenciones y convenios), en 2 reuniones sobre Aurrerabide; y en 2 reuniones con el Área de Violencia de Emakunde con la elaboración de 2 informes.*

*Además, la Unidad de Igualdad coordina técnicamente el Grupo Técnico Departamental-GTD: Se han llevado a cabo 2 reuniones grupales y se ha organizado un curso específico para el GTD, de 10 horas de duración, con el programa Gizonduz.*

### *10. OPERACIONES ESTADÍSTICAS*

*El Órgano Estadístico Específico del Departamento, durante 2015 ha recogido, explotado y difundido en el portal de Departamento la información correspondiente a dos operaciones estadísticas: 'Índice de Sofisticación*

'E-Administrazioaren Barometroa -EAB2014-'. Prentsa-ohar bat prestatu eta zabaldu da aipatutako lehen eragiketari buruz. Era berean, martxan jarri dugu 'Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistika 2015 -ZPEE2015-' bost urteko eragiketaren bilketa.

Halaber, nahitaezko gutxieneko hedadura eman zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Zerbitzuko Langileen Estatistikari (2015). Honako hau sei hilabetez behingozkoa izango da hemendik aurrera.

Ondorengo hauei buruzko estatistika-txosten berezi bat egin dugu:

'Zerbitzuen Digitalizaziorako Plana. Jarraipen Txostena 2014', eta horrekin lotutako sailaren bederatzi txosten.

Lau ustiaketa egin zaizkio ─hiruhilekoak─ Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak kudeatutako zerbitzu-katalogoari.

Aipatutako azterlan eta txostenez gain, estatistika-alorreko beste 38 eskaera puntuali eman zaie erantzuna ─txostenak, datuak eta/edo aholkularitza─.

*Electrónica –ISOF2014-‘, 'Barómetro de la E-Administración -BEA2014- y ha elaborado y difundido una nota de prensa correspondiente a la primera operación citada. Así mismo ha puesto en marcha la recogida de la operación quinquenal 'Estadística de Servicios Públicos Electrónicos 2015 -ESPE2015-'.*

*Así mismo se ha realizado la difusión mínima obligatoria de la ‘Estadística del Personal al Servicio de la Administración de la C.A. de Euskadi 2015’, habiéndose pasado su difusión a periodicidad semestral.*

*Se ha realizado un informe estadístico especial sobre:*

*'Plan de Digitalización de Servicios. Informe de seguimiento 2014', así como nueve informes departamentales asociados.*

*Se han realizado cuatro explotaciones –de carácter trimestral- del Catálogo de Servicios gestionado por la DACIMA.*

*Además de los citados estudios e informes se han contestado otras 38 peticiones puntuales de carácter estadístico –informes, datos y/o asesoramientos-.*

| PROGRAMA | *PROGRAMA* |
|---|---|
| 1213 FUNTZIO PUBLIKOA, LANGILEEN HAUTAKETA ETA PRESTAKUNTZA | *1213 FUNCIÓN PÚBLICA, SELECCIÓN Y FORMACIÓN PERSONAL* |
| **ARDURADUNA** | ***RESPONSABLE*** |
| 02 HERRI-ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA | *02 ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA* |
| FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA | *VICECONSEJERO DE FUNCIÓN PÚBLICA* |

## HELBURUA

1. EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN ARAUAK GARATZEA.
2. EAE-KO ADMINISTRAZIOAREN GIZA BALIABIDEEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO DIAGNOSIA PRESTATZEA.
3. LANPOSTUEN ZERRENDA, BALIOZTAPENA, AZTERKETA- ETA DESKRIPZIO-SISTEMA BERRITZEA ETA ZAINTZEA. LANPOSTU HORIEK BETETZEA ETA LANGILEEN SISTEMA BATERATUAN SARTZEA.
4. 2015EKO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA PRESTATZEA.
5. LANGILEEN KUDEAKETA INTEGRALEKO SISTEMAREN MANTENIMENDUA.
6. LEKUALDATZE-LEHIAKETEN KUDEAKETA.
7. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ZERBITZUPEKO LANGILEEN PRESTAKUNTZA ETA BIRZIKLAPENERAKO PROZEDURA.
8. ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZUPEKO LANGILEEN ERREGIMEN EKONOMIKOA ETA JURIDIKOA KUDEATZEA ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN ARLOKO XEDAPENAK ETA AKORDIOAK KONTROLATU ETA JARRAITZEA.
9. ADMINISTRAZIO OROKORRAREN, ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA BALTZU PUBLIKOEN ZERBITZUPEKO LANGILEEN LAN-BALDINTZAK ARAUTZEA.
10. ZERBITZU OROKORRAK ESKAINTZEA
11. LANEKO OSASUNA - LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA.

## *OBJETIVO*

*1. DESARROLLO DE NORMATIVA DE LA FUNCIÓN PÚBLICA VASCA.*
*2. PLAN DE EMPLEO, REORGANIZACIÓN Y REDIMENSIONAMIENTO DE LA ADMINISTRACIÓN.*
*3. RENOVACIÓN Y MANTENIMIENTO DEL SISTEMA DE DESCRIPCIÓN, ANÁLISIS, VALORACIÓN Y RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO, SU PROVISIÓN Y CONFIGURACIÓN DE UN SISTEMA INTEGRADO DE PERSONAL.*
*4. ELABORACIÓN DE LA OFERTA PÚBLICA DE EMPLEO 2015.*
*5. MANTENIMIENTO DEL SISTEMA INTEGRAL DE GESTIÓN DE PERSONAL.*
*6. GESTIÓN DE CONCURSOS DE TRASLADOS.*
*7. PROCEDIMIENTO DE FORMACIÓN Y RECICLAJE DEL PERSONAL AL SERVICIO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO.*
*8. GESTIÓN DE RÉGIMEN ECONÓMICO Y JURÍDICO DEL PERSONAL AL SERVICIO DE LA ADMINISTRACIÓN, ASÍ COMO EL SEGUIMIENTO Y CONTROL DE DISPOSICIONES Y ACUERDOS EN MATERIA DE FUNCIÓN PÚBLICA.*
*9. REGULACIÓN DE LAS CONDICIONES DE TRABAJO DEL PERSONAL ADSCRITO A LA ADMINISTRACIÓN GENERAL, ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y SOCIEDADES PÚBLICAS.*
*10. PRESTACIÓN DE SERVICIOS GENERALES*
*11. SALUD LABORAL-PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES.*

## BETETZE MAILA

**1. EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN ARAUAK GARATZEA.**

Gobernu Kontseiluak Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legearen proiektua onetsi zuen 2015eko abenduaren 22an egindako saioan.

Guztira 18 dekretu onetsi eta argitaratu dira, funtzionarioen

## *GRADO DE CUMPLIMIENTO*

***1. DESARROLLO DE NORMATIVA DE LA FUNCIÓN PÚBLICA VASCA.***

*El Consejo Gobierno aprobó el Proyecto de Ley del Empleo Público Vasco en su sesión del 22-12-2015.*

*Aprobación y publicación de 18 Decretos de modificación*

eta langile lan-kontratudunen lanpostuen zerrendak aldatzeko.

**2. EAE-KO ADMINISTRAZIOAREN GIZA BALIABIDEEN ANTOLAMENDUARI BURUZKO DIAGNOSIA PRESTATZEA.**

Gobernu Kontseiluak Enplegu Plana osatu eta onetsi du. Plan hark eraginda, EAEko Administrazioko giza baliabideen antolakuntza-diagnostikoa egin behar da, baita hurrengo hamar urteetarako ekintza-plana ere, antolakuntzari zein giza baliabideei dagokienez. Datuen analisiak agerian utzitako diagnostiko sakonean oinarritutako ekintzak.

Enplegu Publikoari buruzko Legearen aurreproiektua 2015. urtean egin da. Horretarako, foru- eta toki-administrazioekin lankidetzan jardun da, langileen ordezkariekin negoziatu da, eta partikularrek zein entitate profesionalek aurkeztutako alegazioak (ia 3.000) aztertu dira. Aholkularitza Juridikoko Batzordeak 138/2015 Irizpena egin zuen, eta 2015eko urriaren 23an onetsi zen. Halaber, Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluaren aldeko txostena jaso zuen 2015eko urriaren 7an. Azkenik, Gobernu Kontseiluak Euskal Enplegu Publikoari buruzko Legearen proiektua onetsi zuen 2015eko abenduaren 22an eginiko saioan.

**3. LANPOSTUEN ZERRENDA, BALIOZTAPENA, AZTERKETA- ETA DESKRIPZIO-SISTEMA BERRITZEA ETA ZAINTZEA. LANPOSTU HORIEK BETETZEA ETA LANGILEEN SISTEMA BATERATUAN SARTZEA.**

Datuak aztertzeko aplikazioa diseinatzen bukatu da. Erabilgarri dago lanpostuen azterketa egiteko, helburuen arabera, eta berariazko kolektiboentzat.

Lanpostuen zerrenda aldatzeko espedienteen kudeaketan ezarritako analisi funtzionalaren bidez definitutako antolaketa-egiturari eustea.

Lan-kontratudunak: Lanpostuen izaeraren azterketa bukatzea, lan-kontratudunak eta funtzionario-edukikoak bereiziz, bakoitza bere lanpostu-zerrendan (LPZ) txertatzearren. Dagoeneko funtzionarioen LPZn dauden zuzkidurek funtzionario-izaerako zuzkidurak bereganatzea.

Langile lan-kontratudunek betetako lanpostuen monografiak eratzea eta interesdunentzako entzunaldi-izapidea egitea.

SAP aplikazioaren diseinua hobetzea (PD modulua).

**4. 2015EKO ENPLEGU PUBLIKORAKO ESKAINTZA PRESTATZEA.**

2015erako Estatuaren Aurrekontu Orokorrei buruzko 36/2014 Legeak, abenduaren 26koak, enplegu publikoko eskaintzak egiteko mugak ezartzen jarraitzen du. Jaurlaritzak enpleguko eskaintza publikoa izapidetu du hezkuntzaren, segurtasunaren eta justiziaren sektoreetan. 2015eko ekitaldian ez da enplegu publikoko eskaintzaren

*de la Relación de Puestos de Trabajo de funcionarios y laborales.*

***2. PLAN DE EMPLEO, REORGANIZACIÓN Y REDIMENSIONAMIENTO DE LA ADMINISTRACIÓN.***

*Se ha elaborado y aprobado por el Consejo de Gobierno el Plan de Empleo que implica no solo un diagnóstico organizativo de los recursos humanos de la Administración de la CAE sino un plan de actuación en materia organizativa y de recursos humanos para los próximos diez años. Actuaciones basadas en un exhaustivo diagnóstico evidenciado por análisis de datos.*

*La elaboración del Anteproyecto de Ley de Empleo Público se ha llevado a efecto a los largo del año 2015 con la colaboración de las Administraciones Forales y Locales, la negociación con la representación de personal y el examen de las cerca de 3.000 alegaciones presentadas tanto por particulares como por entidades profesionales. La COJUA emitió el Dictamen 138/2015 aprobado en fecha 23 de octubre de 2015, recibiendo igualmente el texto Informe favorable por parte del Consejo Vasco de la Función Pública en fecha 7 de octubre de 2015. Finalmente, el Consejo Gobierno aprobó el Proyecto de Ley del Empleo Público Vasco en su sesión del 22-12-2015.*

***3. RENOVACIÓN Y MANTENIMIENTO DEL SISTEMA DE DESCRIPCIÓN, ANÁLISIS, VALORACIÓN Y RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO, SU PROVISIÓN Y CONFIGURACIÓN DE UN SISTEMA INTEGRADO DE PERSONAL.***

*Se ha finalizado el diseño de la aplicación de análisis de datos. Disponible para realizar análisis de puestos en función de objetivos y para colectivos específicos.*

*Mantenimiento de la estructura organizativa definida con la implantación de los Análisis Funcionales en la gestión de expedientes de modificación de la Relación de Puestos de Trabajo.*

*Laborales: Finalización del análisis de la naturaleza de los puestos: separando los de contenido propiamente Laboral de los de contenido funcionarial, al objeto de integrarlos en la RPT correspondiente. Asimilación de las dotaciones de carácter funcionarial a dotaciones ya existentes en la RPT de funcionarios.*

*Elaboración de las monografías de los puestos desempeñados por personal laboral y realización del trámite de audiencia a los interesados.*

*Mejora del diseño de la aplicación SAP (Módulo PD).*

***4. ELABORACIÓN DE LA OFERTA PÚBLICA DE EMPLEO 2015.***

*La Ley 36/2014, de 26 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2015 mantiene las limitaciones para la elaboración de Ofertas Públicas de Empleo. El Gobierno ha tramitado la Oferta Pública de Empleo en el Sector de Educación, de Seguridad y de Justicia. No se ha convocado Oferta Pública de Empleo en*

deialdirik egin Administrazio Orokorrean.

*la Administración General en el ejercicio 2015.*

**5. LANGILEEN KUDEAKETA INTEGRALEKO SISTEMAREN MANTENIMENDUA.**

Langileak kudeatzeko sistema osoa mantentzeko beharrezko zereginei jarraipena eman zaie, bai eta giza baliabideak kudeatzeko sistema berria (EIZU) benetan abiarazteko lanei ere. Bereziki, GEPEIZU izeneko aplikazio berriaren lehen fasea martxan jarri da.

***5. MANTENIMIENTO DEL SISTEMA INTEGRAL DE GESTIÓN DE PERSONAL.***

*Se ha continuado con las tareas necesarias para el mantenimiento del Sistema Integral de Gestión de Personal así como se han continuado los trabajos necesarios para la puesta en marcha efectiva del nuevo sistema de gestión de recursos humanos (EIZU), en particular se ha puesto en marcha la fase inicial de la nueva aplicación denominada GEPEIZU.*

**6. LEKUALDATZE-LEHIAKETEN KUDEAKETA.**

Zazpi lehiaketa espezifiko antolatu dira.

Meritu eta titulazioko zerrenda birgaituak egin dira, hurrengo lekualdatze-lehiaketako merituak sailkatzeko eta balioesteko. Lehiaketaren epaimahaikideek kontsultatzeko eskuliburua osatu da, merituak eta hautagaiek egiaztatutako prestakuntza balioesteko.

Hezkuntza Saila, IVAP eta Unibasq lankidetzan hasi dira. Horren xedea da irizpide bateratuak eta publikoak ezartzea poltsen hautaketa-prozesuetan eta etorkizuneko EPEetan (enplegu publikoko eskaintza) herritarrek egiaztatutako titulazioen egokitasuna xedatzean, edukiaren eta mailaren arabera.

***6. GESTIÓN DE CONCURSOS DE TRASLADOS.***

*Se han convocado 7 concursos específicos.*

